

3

V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Jon Aizpurua eta Agurtzane Ortiz de Landaluze

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Sarrera-data: 2012-10-15 | Onartze-data: 2012-11-30

Laburpena. Inkesta soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleena da. Lau ikerketa-eremu nagusi jasotzen ditu: herritarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean eta eremu formaletan) eta euskararekiko jarrera... Inkesta soziolinguistikoa bost urterik behin burutzen den azterlana da, eta honakoa bosgarrena da. Beraz, gaur egun euskararen egoera nolakoa den adierazteaz gain, azken hogeitaz bilakaera nolakoa izan den azaltzeko aukera ematen digu. Artikulu honetan, inkesta honen emaitza nagusiak aurkeztuko dira. • **Hitz-gakoak:** *Inkesta soziolinguistikoa, hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-transmisioa, erabilera, jarrera.*

Abstract. The Sociolinguistic Survey takes into consideration the Basque Country's inhabitants over the age of sixteen. The age group left out of the survey constitutes a considerable chunk as far as Basque is concerned, because it is the age group of youngsters who are the most Basque speaking as a result of school. The survey is usually stratified in terms of sex and age, and a total of 7,800 questionnaires were done in this 5th edition: 4,100 in the BAC (Basque Autonomous Community), 2,000 in the Northern or Continental Basque Country, and 1,700 in Navarre. The Sociolinguistic Survey is a piece of research conducted every five years; five have been done so far. So, in addition to describing what the situation is like today, it gives us the chance to see what kind of evolution has taken place over the last twenty years. This paper will be presenting the main results of this survey. • **Key words:** *Sociolinguistic survey, language competence, language transmission, use.*

SARRERA

I

Inkesta soziolinguistikoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleak hartzen ditu aintzakotzat (2.650.000 pertsona gutxi gorabehera). Inkestatik kanpo gelditzen den adin-tartea pisu handikoa da euskararentzat, eskolaren eraginez euskaldunenak diren gazteen adin-tartea delako. Sexuaren eta adinaren arabera estratifikatu ohi da azterketa, eta, guztira, V. edizio honetan 7.800 inkesta egin dira: 4.100 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan. Informazioa jasotzeko, galdetegi egituratua eta itxia erabili da.

V. Inkesta Soziolinguistikoa lau ikerketa-eremu jasotzen ditu: herriarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean eta eremu formaletan) eta euskararekiko jarrera.

Landa-lana Siadecok egin du 2011ko ekain eta abendu bitartean eta telefono bidez.

Euskararen lurraldeetako lagin osoaren akats-tartea +%1,5koa da %95, 5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$. Konfiantza-maila bere-rako, elebidunen akats-tartea +%1,9koa da eta beste horrenbestekoa erdaldunena. Euskal Autonomia Erkidegoko akats-tartea +%1,87koa da, Nafarroan +%3,1koa eta Iparraldean +%2,31koa.

Inkesta soziolinguistikoa bost urterik behin burutzen den azterlana da; orain arte bost burutu ditugu. Beraz, gaur egun euskararen egoera nolakoa den adierazteaz gain, azken hogeitako bilakaera nolakoa izan den azaltzeko aukera ematen digu.

Artikuluari, honako gaien inguruan banatuta emango ditugu datuak: 1. Hizkuntza-gaitasuna, 2. Lehen hizkuntza, 3. Hizkuntzaren familia bidezko transmisioa, 4. Euskararen irabaziak eta galerak, 5. Euskararen erabilera eta 6. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.

***Inkesta
soziolinguistikoa
bost urterik
behin burutzen
den azterlana da;
orain arte bost
burutu ditugu.
Beraz, gaur egun
euskararen
egoera nolakoa
den adierazteaz
gain, azken hogeitako
urteotako
bilakaera
nolakoa izan den
azaltzeko aukera
ematen digu.***


2011ko datuen arabera, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %27 elebiduna da, %14,7 elebidun hartzailea eta %58,4 erdalduna.

Lurraldeka, EAEn 16 urte edo gehiagoko elebidunak %32 dira (1991n %24,1 ziren), Iparraldean %21,4 (1996an %26,4 ziren) eta Nafarroan %11,7 (1991n %9,5).

1. HIZKUNTZA-GAITASUNA

2011ko datuen arabera, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %27 elebiduna da, %14,7 elebidun hartzailea eta %58,4 erdalduna.

1. Irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2001 (%)



1. Taula . Hizkuntza-gaitasuna, herrialdearen arabera. Euskal Herria, 2011

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Elebidunak	714.136	600.058	62.977	51.100
Elebidun hartzaileak	388.255	325.967	40.546	21.742
Erdaldunak	1.546.607	947.473	433.616	165.518

Lurraldeka, EAEn 16 urte edo gehiagoko elebidunak %32 dira (1991n %24,1 ziren), Iparraldean %21,4 (1996an %26,4 ziren) eta Nafarroan %11,7 (1991n %9,5).

2. Taula. Hizkuntza-gaitasuna, herrialdearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)


	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Elebidunak	27,0	32,1	11,7	21,4
Elebidun hartzaileak	14,7	17,2	7,5	9,1
Erdaldunak	58,4	50,8	80,7	69,4
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	1.873.498	272.064	999.228	602.206
Elebidunak	32,1	16,8	25,4	49,9
Elebidun hartzaileak	17,2	16,8	17,8	16,4
Erdaldunak	50,8	66,4	56,8	33,7

Lurraldearen eta hiriburuaren arteko elebidunen aldea handia da Gipuzkoa eta Donostia alderatuz (%49,9 versus %33,5). Ildo beretik jarraituz, Bizkaiaren eta Bilboren arteko aldea ere nahiko handia da 8 puntukoa (%25,4 versus %17,6).

EAE barruan hiru lurraldeetako hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuz, aipatzekoa da alde handiak daudela batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia elebiduna da (%49,9, hau da, 300.000 elebidun). Bizkaian, ordea, biztanleriaren laurdena da elebiduna (%25,4, hau da, 254.000 elebidun). Azkenik, Arabako biztanleriaren bostenera ere ez da iristen elebidunen ehunekoa (%16,8, hau da, 46.000 elebidun).

Gauza bera esan daiteke Iparraldeko lurraldeen hizkuntza gaitasunari dagokionez, aldeak ere handiak dira lurralde desberdinen arabera. Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren erdia elebiduna da (%52,1, hau da, 17.000 elebidun). Lapurdi barnealdean, ordea, biztanleriaren laurdena da elebiduna (%23,9, hau da, 25.500 elebidun). Azkenik, BAMen 10era ere ez da iristen elebidunen ehunekoa (%8,7, hau da, 8.500 elebidun).

2. Irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Lapurdi osoaren eta BAMen arteko aldea ere 8 puntukoa da (%16,6 versus %8,7).

Nafarroaren eta Iruñearen artean 2 puntu pasako aldea dago (%11,7 versus %9,1). Alderik txikiena Arabaren eta Gasteizen artean dago (%16,8 versus %15,5).


EAEn eta Nafarroan, esaterako, 16-24 adin-tartean dago elebidunen ehunekorik handiena (%59,7 eta %20,8, hurrenez hurren). Iparraldean, aldiz, 65 urtetik gorakoen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egin du elebidunen

Inkesta honetan hiriburuetakoa datuak ere emango ditugu. Aipatze-koa da bost hiriburuak euren lurraldeek baino elebidunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian elebidunak %33,5 dira, Bilbon %16,3, Gasteizen %15,5, Iruñean %9,1 eta BAMen %8,7.

Lurraldearen eta hiriburuaren arteko elebidunen aldea handia da Gipuzkoa eta Donostia alderatuz (%49,9 versus %33,5). Ildo beretik jarraituz, Bizkaiaren eta Bilboren arteko aldea ere nahiko handia da 8 puntukoa (%25,4 versus %17,6). Lapurdi osoaren eta BAMen arteko aldea ere 8 puntukoa da (%16,6 versus %8,7). Nafarroaren eta Iruñearen artean 2 puntu pasako aldea dago (%11,7 versus %9,1). Alderik txikiena Arabaren eta Gasteizen artean dago (%16,8 versus %15,5).


Hiribururik euskaldunena Donostia da (%33,5) eta erdaldunena BAM (%8,7).

3.Irudia. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Gaur egun hamasei urtetik gorako biztanleen artean 1991n baino 185.600 elebidun gehiago daude. Duela 20 urte %22,3 ziren elebidunak. Elebidunen hazkundea EAEn gertatu da batez ere eta Nafarroan neurri txikiagoan. Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude, baina gazte elebidunen kopurua hasi da dagoeneko gora egiten.

4. Irudia. Elebidunen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2011



Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera neurtzen denean, ikus daiteke elebidunen hazkundera gazteen artean gertatzen ari dela bereziki.

3. Taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera, Euskal Herria, 1991-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
2011	2.648.998	594.158	604.618	746.803	445.727	257.692
Elebidunak	27,0	21,4	20,5	24,4	35,9	46,8
Elebidun hartzaileak	14,7	8,4	12,1	16,7	20,8	18,5
Erdaldunak	58,4	70,2	67,4	58,8	43,3	34,7
1991	2.371.079	345.035	549.644	568.881	457.806	449.714
Elebidunak	22,3	28,5	23,0	19,3	20,3	22,5
Elebidun hartzaileak	7,7	3,6	4,2	5,1	7,6	18,6
Erdaldunak	70,0	67,9	72,8	75,7	72,1	58,9

EAE n eta Nafarroan, esaterako, 16-24 adin-tartean dago elebidunen ehunekorik handiena (%59,7 eta %20,8, hurrenez hurren). Iparraldean, aldiz, 65 urtetik gorakoen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egin du elebidunen ehunekoak. Hala ere, Iparraldeko gazteen artean duela bost urte sumatutako joera-aldaketa berretsi egin da, eta 2011ko datuen arabera gora egin dute gazte elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

Aldi berean, erdaldunak duela 20 urte baino 140.239 gutxiago dira Euskal Herrian (%70 1991n eta %58,4 2011n).

4. Taula. Hizkuntza-gaitasuna herrialdearen eta adinaren arabera, Euskal Herria 2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
EAE	1.873.498	417.515	433.640	529.342	318.643	174.358
Elebidunak	32,0	23,3	22,9	29,8	44,5	59,7
Elebidun hartzaileak	17,4	9,5	14,2	19,7	25,0	23,2
Erdaldunak	50,6	67,2	62,9	50,5	30,5	17,0
Nafarroa	537.139	114.377	115.268	156.096	95.028	56.370
Elebidunak	11,7	9,3	9,6	10,1	14,5	20,8
Elebidun hartzaileak	7,5	5,1	6,5	9,2	9,3	7,2
Erdaldunak	80,7	85,7	83,9	80,7	76,1	71,9
Iparraldea	238.360	62.266	55.710	61.365	32.056	26.964
Elebidunak	21,4	30,6	24,4	15,1	13,9	17,6
Elebidun hartzaileak	9,1	7,6	7,2	9,8	12,3	11,3
Erdaldunak	69,4	61,8	68,5	75,1	73,7	71,1

Erdaldunen ehunekoak behera egin du EAEn eta Nafarroan. Iparraldean, aldiz, gora egin du bai kopuruak baita ehunekoak ere. Erdaldunen beherakada eta elebidunen hazkundea are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da, beraz gazteen multzoak, gaur egun elebidun gehien biltzen dituenak hain zuzen ere, gero eta pisu gutxiago du gizarte osoarekiko. Aldi berean, azken 20 urteotan nabarmen hazi da etorkinen ehunekoa. EAEn %6,6 izatera iritsi dira eta Nafarroan %11,2 izatera. Iparraldean kanpotik etorritako jendearen eragina oso handia da (biztanleen %41,5 inkestako datuen arabera). Duela 20 urte ere, Iparraldean kanpotarren ehunekoa gainerako bi lurraldeetan baino handiagoa zen.

Datuak osotasunean aztertuta, baieztatu daiteke elebidunen ehunekoak gora doazela EAEn eta Nafarroan. EAEn indartsu, eta Nafarroan apalago. Iparraldean, aldiz, galerak daude oraindik. Hala ere, Iparraldeko gazteen artean gora egin du elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

Elebidunen erraztasuna euskaraz egiteko

Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko elebidunen %26,6 hobeto moldatzen da euskaraz erdaraz baino, euskal elebidunak dira. Dena dela, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorako artean dago (%43,6), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Horrela, euskal elebidunak %25 baino gutxiago dira 50 urtetik beherako elebidunen artean.

Elebidun orekatuak, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz zein erdaraz eta elebidunen %30,6 dira. Elebidun orekatuen ehunekorik txikiena gazteen adin-taldean dago, lau lagunetik bat baitira.

Erdal elebidunak hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino, eta %42,7 dira. Elebidunen multzorik handiena dira eta ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, gazteen erdiak erdal elebidunak dira.

Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko elebidunen %26,6 hobeto moldatzen da euskaraz erdaraz baino, euskal elebidunak dira. Dena dela, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorako artean dago (%43,6), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Horrela, euskal elebidunak %25 baino gutxiago dira 50 urtetik beherako elebidunen artean.

5. Taula. Euskaraz egiteko erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)


	Elebidunak		Adina			
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24	
2011	714.136	126.908	123.837	182.590	160.182	120.619
Euskal elebidunak	26,6	43,6	28,6	21,5	20,6	22,6
Elebidun orekatuak	30,6	30,4	33,5	32,0	30,4	26,2
Erdal elebidunak	42,7	26,1	37,9	46,5	49,0	51,2
1991	528.521	98.274	126.679	109.512	93.027	101.028
Euskal elebidunak	34,6	57,3	44,2	30,6	18,5	19,4
Elebidun orekatuak	27,7	24,5	27,2	27,0	32,2	27,8
Erdal elebidunak	37,8	18,2	28,5	42,4	49,3	52,8

Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera

Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. 1991n elebidun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, etxean jaso zuten euskara (euskara soilik). Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin-talde guztietan. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere (%52,4), gazteen artean irauli egin da egoera. Izan ere, 16-24 urte tarteko gazte elebidunen erdia baino gehiago (%51,9) euskaldun berria da dagoeneko, hau da, eskolan edo euskaltegian ikasi du euskara. 1991n, aldiz, adin tarte horretako elebidunen %15 besterik ez zen euskaldun berria.


Bestalde, etxean euskara eta erdara, hau da, bi hizkuntzak batera jaso dituztenak ere gero eta gehiago dira, hau da, jatorrizko elebidunak dira. Bikote mistoen eta bikote euskaldun berrien seme-alabak dira. Horrela, 16-24 urte tarteko gazte elebidunen %18,9 jatorrizko elebiduna da dagoeneko.

5. Irudia. Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011



EAEko 16 urtetik gorako elebidunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko dugu orain. Elebidunen erdiak baino gehiagok (%51) euskara soilik jaso dute etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira. Elebidunen %12,3k euskara eta erdara jaso dute, eta jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, herenak baino gehiagok (%36,6) erdara jaso dute eta euskaldun berriak dira.

6. Irudia. Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2011




Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. 1991n elebidun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, etxean jaso zuten euskara (euskara soilik). Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin-talde guztietan. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere (%52,4), gazteen artean irauli egin da egoera. Izan ere, 16-24 urte tarteko gazte elebidunen erdia baino gehiago (%51,9) euskaldun berria da dagoeneko, hau da, eskolan edo euskaltegian ikasi du euskara. 1991n, aldiz, adin tarte horretako elebidunen %15 besterik ez zen euskaldun berria.

Nafarroako 16 urte edo gehiagoko elebidunen ia erdiek (%47,4) euskara izan dute lehen hizkuntza, hau da, euskaldun zaharrak dira. Nafarroako elebidunen %37,2 euskaldun berriak dira, eta gehienak eremu mistoan bizi dira. Zenbat eta gazteago orduan eta euskaldun berri gehiago. Baina, euskaldun berriekin batera, hazkunde handia izan dute jatorrizko elebidunek. Elebidunen %15,3 dira. Jatorrizko elebidunek euskara eta erdara izan dute lehen hizkuntza eta 16 eta 24 urtekoen artean euskaldun zaharrak baino gehiago dira dagoeneko.

Duela 20 urte, ordea, ia elebidun guztiak euskaldun zaharrak ziren. Orain ez bezala, adin-talde guztietan ziren nagusi euskaldun zaharrak.


7. Irudia. Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011



Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko lau elebidunetik hiruk (%73,8) euskara hutsik izan du lehen hizkuntza, euskaldun zaharrak dira. Horrez gain, %13,1 jatorrizko elebidunak dira eta euskara, eta erdara izan dute lehen hizkuntza. Azkenik, aipatzekoa da gaur egun Iparraldean 16 urtetik gorako elebidunen %13 euskaldun berriak direla, eta gehienak oso gazteak.

Duela 15 urte ia elebidun guztiak euskaldun zaharrak ziren, eta ez zegoen ia euskaldun berririk, baina orain gero eta gehiago dira. EAEn eta Nafarroan bezala, Iparraldean ere zenbat eta gazteago orduan eta euskaldun berri gehiago daude elebidunen artean.

8. Irudia. Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011




Gazteen arteko euskaldun berrien nagusitasuna argia da EAEn eta Nafarroan, eta Iparraldean ere gero eta gehiago dira. Horrek eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunean nahiz zailtasunean. Izan ere, elebidunen artean, erdal elebidunek, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnek osatzen dute multzorik handiena EAEn eta Nafarroan, eta gero eta gehiago dira Iparraldean.

2. LEHEN HIZKUNTZA

Euskal Herriko bost biztanletik lauk (%79,7k) erdara dute lehen hizkuntza. Euskara dutenak %15,4 dira eta biak dituztenak %4,9.

9. Irudia. Lehen hizkuntza. Euskal Herria, 2011 (%)



Alde handiak daude lurralde batetik bestera. Lehen hizkuntza euskara dutenak nagusi dira Nafarroa Beherean eta Zuberoan (%51,2). Gipuzkoan 16 urtetik gorako biztanleek %33,9k dute euskara lehen hizkuntza. Gainerako lurraldeetan askoz gutxiagok dute euskara lehen hizkuntza. Lapurdi %14,5ek dute euskara lehen hizkuntza eta %11,5ek Bizkaian. Ehunekorik txikiena Nafarroak (%6,1) eta Arabak dute (%3,4).

6. Taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)

	Guztira	Lurraldeak					Nafarroa Beherea /Zuberoa
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	
2011	2.648.998	272.064	999.228	602.206	537.139	205.778	32.582
Euskara	15,4	3,4	11,5	33,9	6,1	14,5	51,2
Euskara eta erdara	4,9	2,7	4,8	7,6	2,8	4,7	9,7
Erdara	79,7	93,9	83,7	58,5	91,1	80,8	39,1

Euskal Herriko datu orokorre erraparatuz, adinari dagokionez, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handiena 65 urtetik gorako helduen artean dago oraindik (%20,9). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Baina gazteenen artean (24 urtetik beherakoen artean) joera-aldaketa dago, eta hasi egin da bai euskara (%13,7) bai euskara eta erdara (%9,1) dutenen ehunekoa. Hala ere, kontuan hartu behar da joera-aldaketa hori batez ere EAEn gertatu dela. Nafarroan 50 urtetik beherakoen artean ez da ehunekoa jaitsi, %4tik gora mantentzea lortu da adin-talde horietan guztietan. Iparraldean, aldiz, gazteenen artean gero eta txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa.

Duela 20 urte ere lehen hizkuntza euskara zutenen ehunekorik handian 65 urtetik gorako helduen artean zegoen (%27,7) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala.

Bestalde, lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa (%4,9) orain dela hogeitau urte baino handiagoa da (%3) eta asko ari da igotzen adinean behera egin ahala. Gazteenen artean (16-24 urtetik birtartekoak) %9,1en lehen hizkuntza euskara eta erdara dira.


7. Taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)

	Guztira			Adina		
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24	
2011	2.648.998	594.158	604.618	746.803	445.727	257.692
Euskara	15,4	20,9	16,6	12,3	12,5	13,7
Euskara eta erdara	4,9	3,7	3,9	4,5	5,9	9,1
Erdara	79,7	75,3	79,5	83,2	81,6	77,2
1991	2.371.079	345.035	549.644	568.881	457.806	449.714
Euskara	19,5	27,7	21,3	18,8	15,8	15,7
Euskara eta erdara	3,0	2,7	3,0	2,3	3,6	3,4
Erdara	77,5	69,7	75,7	78,9	80,6	80,9

3. HIZKUNTZAREN FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioa nolakoa izan den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean. Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

10. Irudia. Seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera. EAE, 2011(%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2011.

Gurasoak biak elebidunak izanik, EAEko seme-alaben %85ek, Nafarroako %71,2k eta Iparraldeko %68k euskara soilik jaso dute. Bestalde, EAEko %7k, Nafarroako %11,6k eta Iparraldeko %12,2k euskara eta erdara jaso dute. Azkenik, EAEko %8k, Nafarroako %17,3k eta Iparraldeko %19,8k ez dute euskararik jaso etxean.

Gurasoak biak elebidunak izanik, EAEko seme-alaben %85ek, Nafarroako %71,2k eta Iparraldeko %68k euskara soilik jaso dute. Bestalde, EAEko %7k, Nafarroako %11,6k eta Iparraldeko %12,2k euskara eta erdara jaso dute. Azkenik, EAEko %8k, Nafarroako %17,3k eta Iparraldeko %19,8k ez dute euskararik jaso etxean.


11. Irudia. Seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera. Nafarroa, 2011(%)



Gurasoetako bat baino ez izanik elebiduna, gehienek erdara soilik transmititu dute EAEn (%71) zein Nafarroan (%70,9) zein Iparraldean (84,6).

Horrezaz gain, gaur egungo transmisioa nolakoa den jakiteko, 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuek zein hizkuntza transmititu duten aztertu da. Datuen arabera, guraso biak elebidunak direnean, EAEko seme-alaben %85ek euskara hutsik jaso dute etxean, %78k Nafarroan eta %54k Iparraldean. Euskara erdararekin batera jaso dute EAEko %11k, Nafarroako %17k eta Iparraldeko %33k. EAEn eta Nafarroan oso gutxi dira euskara transmititu ez duten bikote elebidunak (%3 eta %4 hurrenez hurren). Iparraldean, ordea, handiagoa da ehunekoia. Izan ere, %13k ez dute euskararik transmititu.

12. Irudia. Seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera. Iparraldea, 2011(%)



EAEn eta Nafarroan guraso biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak direnean, ia %100ean transmititzen dute euskara. Hala ere, gurasoetako bat edo biak euskaldun berriak direnean, euskararen transmisioa txikiagoa da, baina gehienek euskara transmititzen dute.

Bikote mistoen kasuan, hau da, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 2-15 urte bitarteko seme-alaba gehienek euskara eta erdara jaso dituzte lurralde guztietan, baina ez neurri berean. EAEko seme-alaben %71k Nafarroako %67k eta Iparraldeko %56k.

Euskararen familia bidezko transmisioan aldaketarik handiena bikote mistoen artean gertatu da. Lehen gehienek ez zuten euskararik transmititzen eta orain herena dira transmititzen ez dutenak EAEn eta Nafarroan, eta %44 Iparraldean.

Gertakari hori bikotekideen hizkuntza-gaitasunarekin dago lotuta. Izan ere, guztiak elebidunak diren arren, guraso euskaldun berriak gero eta gehiago dira, eta horiek seme-alabei euskara transmititzen badiete ere, gero eta gehiago dira erdararekin batera transmititzen dutenak.

Nafarroan eta EAEn joerak batera doaz, baina ez Iparraldean. Izan ere, guraso biak elebidunak izanik ere, Iparraldean asko dira euskara eta frantsesa batera transmititzen dutenak (%33). Horrezaz gain, bikote mistoen kasuan, gaur egun ere, asko dira (%44) euskara transmititzen ez dutenak, EAEn eta Nafarroan baino askoz gehiago.

Irabazien hazkundera eta galeren ia desagerpena gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere.


Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek (%88k EAEn, %83k Nafarroan eta %75ek Iparraldean) euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun.

4. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Irabazien hazkundera eta galeren ia desagerpena gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere.

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek (%88k EAEn, %83k Nafarroan eta %75ek Iparraldean) euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun.

13 Irudia. Euskararen galeren eta irabazien bilakaera, adinaren arabera. EAE, 1991-2011(%)




Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen %3 inguru). Galera horren zati bat (erdia inguru EAEn eta Iparraldean, eta herena pasatxo Nafarroan) galera partziala izan da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

Gaur egun galera gehienak 50 urtetik gorakoek dira.


Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 249.918 pertsona daude, 1991n baino 178.216 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.

14 Irudia. Euskararen galeren eta irabazien bilakaera, adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011(%)



Euskara ikasi dutenak 219.674 lagun dira EAEn (1991n baino 160.000 gehiago), 23.470 Nafarroan (1991n baino 17.000 gehiago) eta 6.774 Iparraldean (1991n baino ia 5.000 lagun gehiago). Irabaziak gazteen artean hazi dira batik bat.

15 Irudia. Euskararen galeren eta irabazien bilakaera, adinaren arabera Iparraldea, 1996-2011(%)



Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera intentsiboa egiten dutenak %20 dira EAEn, %9,6 Iparraldean eta %5,5 Nafarroan. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %7,3 dira EAEn, %7,1 Iparraldean eta %1,9 Nafarroan.

5. EUSKARAREN ERABILERA


Euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio eta eratzeko honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea (bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta neba-arrebak), lagunak eta eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak).

Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuz gero, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %24,2k euskara erabiltzen du neurri batean edo bestean:

%16,1ek euskararen erabilera intentsiboa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.


%8,1ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

16. Irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Euskal Herria, 2011 (%) (Etxea-Lagunak-Formala)




Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera intentsiboa egiten dutenak %20 dira EAEn, %9,6 Iparraldean eta %5,5 Nafarroan. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %7,3 dira EAEn, %7,1 Iparraldean eta %1,9 Nafarroan.

17. Irudia. Euskararen erabileraren tipologia, 2011 (%) (Etxea-Lagunak-Formala)



Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du EAEn, bere horretan dago Nafarroan eta behera egin du Iparraldean.

18. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, 1991-2011 (%)



Erabilera eremuaren arabera

Euskararen erabilerak gora egin du eremu guztietan, etxean izan ezik. Hazkunderik handienak eremu formaletan izan dira.

Etxean, esan bezala, duela hogeit hamar urte baino gutxiago erabiltzen da euskara, baina erabileraren beherakada hori ez da etxeko kide guztiekiko erabileran gertatu. Izan ere, seme-alabekin eta, neurri txikiagoan bada

Euskararen erabilerak gora egin du eremu guztietan, etxean izan ezik. Hazkunderik handienak eremu formaletan izan dira.

Etxean, esan bezala, duela hogeit hamar urte baino gutxiago erabiltzen da euskara, baina erabileraren beherakada hori ez da etxeko kide guztiekiko erabileran gertatu. Izan ere, seme-alabekin eta, neurri txikiagoan bada ere, neba-arrebekin hazi egin da euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Ez, ordea, bikotekidearekin eta gurasoekin.

EAEn ere euskararen erabilerak gora egin du erabilera-eremu guztietan, etxean izan ezik. Etxeko erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu azken 20 urteotan, eta %17aren bueltan ibili da 1991 eta 2011 bitartean.

Etxetik kanpo, lagunekin (%21,8), lankideekin (%24,5), udal zerbitzukoekin (%24,8) eta osasun-zerbitzukoekin (%19,8) argi eta garbi egin du gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak.


ere, neba-arrebekin hazi egin da euskara erabiltzen dutenen ehunekoak. Ez, ordea, bikotekidearekin eta gurasoekin.

Erabilera-eremu berezia da etxea. Gainontzeko eremuetan ez bezala, nahikoa da etxeko kide batek euskaraz ez jakitea, etxeko hizkuntza erdara izan dadin. Hala ere, guraso askok, baita euskaraz hitz egiteko erraztasun handirik ez dutenak ere, euskara erabiltzen dute seme-alabekin, batez ere umeak diren bitartean.

Bestalde, elebidun gazteen artean, gero eta gehiago dira familia-giro erdaldunetatik datozenak eta euskara eskolan ikasi dutenak. Gazte euskaldun berri horietako askoren etxean euskara erabiltzeko duten aukera bakarra haiek bezala eskolan euskaldundu diren neba-arrebak dira.

Erabilera-eremu formalen artean, osasun-zerbitzuetako erabilerak izan du azken 20 urteotako hazkunderik esanguratsuena, nahiz eta ehunekoak oraindik beste erabilera-eremu batzuen azpitik egon.


19. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, erabilera-eremuaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



EAEn ere euskararen erabilerak gora egin du erabilera-eremu guztietan, etxean izan ezik. Etxeko erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu azken 20 urteotan, eta %17aren bueltan ibili da 1991 eta 2011 bitartean. Etxeko kideen arteko erabilerari dagokionez, bikotekidearekin (%14, 1) eta amarekin (%16, 4) gorabeherak puntu batekoak baino txikiagoak izan dira. Aitarekin (%15,9), aldiz, zertxobait gora egin du erabilerak (2 puntu). Etxeko kideen artean, erabileran izan diren igoerarik handienak seme-alabekin (%22,8) eta neba-arrebekin (%20,1) izan dira.


Etxetik kanpo, lagunekin (%21,8), lankideekin (%24,5), udal zerbitzukoekin (%24,8) eta osasun-zerbitzukoekin (%19,8) argi eta garbi egin du gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak.

20. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, erabilera-eremuaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Nafarroan euskararen erabilera %5 eta %8 bitartekoa da eremu guztietan (etxean %5, 4, seme-alabekin %8, lagunekin %7,5 eta lankideekin %7,1). Eremu formalean, %6,3 da erabilera udaletxeekin eta %4,8 osasun-zerbitzukoekin. Azken 20 urteotan erabilera oso gutxi aldatu da. Eremu formalean izan du igoerarik handiena (2 puntu inguru).

21. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, erabilera-eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)




Nafarroan euskararen erabilera %5 eta %8 bitartekoa da eremu guztietan (etxean %5,4, seme-alabekin %8, lagunekin %7,5 eta lankideekin %7,1). Eremu formalean, %6,3 da erabilera udaletxeekin eta %4,8 osasun-zerbitzukoekin. Azken 20 urteotan erabilera oso gutxi aldatu da. Eremu formalean izan du igoerarik handiena (2 puntu inguru).

Iparaldean, euskararen erabilera %11 ingurukoa da etxekeekin eta lankideekin. Azpimarratzekoa da erabilerarik handiena lagunartekoa dela (%14,5). Euskararen erabilera, aldiz, txikia da eremu formaletan (%8,3 udal zerbitzukoekin eta %3,5 osasun-zerbitzukoekin). Azken 15 urteotan, euskararen erabilerak behera egin du oro har.

Iparaldean, euskararen erabilera %11 ingurukoa da etxekeekin eta lankideekin. Azpimarratzekoa da erabilerarik handiena lagunartekoa dela (%14,5). Euskararen erabilera, aldiz, txikia da eremu formaletan (%8,3 udal zerbitzukoekin eta %3,5 osasun-zerbitzukoekin). Azken 15 urteotan, euskararen erabilerak behera egin du oro har.


22. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, erabilera-eremuaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Erabilera adinaren arabera


Azken 20 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du 50 urtetik beherakoen artean eta behera 50 urtetik gorakoen artean. Igoera hori, baina, ez da leku guztietan modu berean gertatu. Izan ere, bere horretan EAEn baino ez da gertatu. Nafarroan eta Iparraldean euskararen erabilerak gora egin du, baina 35 urtetik beherakoen artean, Iparraldean lehenengo aldiz gainera.

23. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)




Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen igoera handia izan da EAEn 35 urtetik beherakoen artean (25-34 urtekoen artean 8 puntu eta 16-24 urtekoen artean 14 puntu). Iparraldeko eta Nafarroako igoerak apalagoak dira.

24. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)



Aldaketarik handienak adinaren arabera gertatu dira. 35 urtetik gorako elebidunen artean erabilerak zertxobait gora egin du. 25 eta 34 urteko gazte elebidunen artean, aldiz, erabilerak behera egin du (9 puntu). Baina, gazteenen artean joera aldatu egin da 2001etik aurrera eta ia 5 puntuko hazkundera izan du erabilerak.

25. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)




Erabilerak elebidunak bakarrik kontuan hartuz

Orain arte aztertu ditugun emaitzen arabera, euskararen erabilerak oro har aurrera egin duela esan dezakegu. Gaur egun duela 20 urte baino lagun gehiagok erabiltzen du euskara. Aldi berean, gaur egungo elebidunen artean euskara erabiltzen dutenen proportzioa ez da askorik aldatu azken 20 urteotan (2 puntuko aldea dago).


Aldaketarik handienak adinaren arabera gertatu dira. 35 urtetik gorako elebidunen artean erabilerak zertxobait gora egin du. 25 eta 34 urteko gazte elebidunen artean, aldiz, erabilerak behera egin du (9 puntu). Baina, gazteenen artean joera aldatu egin da 2001etik aurrera eta ia 5 puntuko hazkundera izan du erabilerak.

26. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. EUBIDUNAK. Euskal Herria, 1991-2011 (%)




Aldaketa horiek EAEko datuetan ikus daitezke argi eta garbi.

27. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten ELEBIDUNEN bilakaera, adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Nafarroan, aldiz, jaitsiera adin-talde guztietan gertatu da, eta handia izan da elebidun gazteen artean, eremu mistoko elebidun gazteen hazkundeagatik.

28. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten ELEBIDUNEN bilakaera, adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)




Euskararen erabilera sustatzearen alde daude 16 urte edo gehiagoko biztanleen %62,3 EAEn, %38,5 Iparraldean eta %37,7 Nafarroan.

Euskara sustatzearen aurka daudenak %11,6 dira EAEn, %21,3 Iparraldean eta herena (%34,5) Nafarroan.

Euskara sustatzearen ez alde ez aurka biztanle-multzo esanguratsua dago: %40,2 Iparraldean, %27,8 Nafarroan eta %26,1 EAEn.

Iparraldean gora egin du euskara erabiltzen dutenen ehunekoak 35 urtetik beherako gazteen artean. Baina emaitza hori tentuz hartu behar dugu, eta datozen urteetan bilakaera gertutik jarraitu. Hala ere, pentsatzekoa da, EAEn eta Nafarroan gertatu den bezala, eskola bidez euskaldundu diren gazteak hazi ahala, euskara erabiliko dutenen ehunekoa jaitسي egingo dela.

29. Irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten ELEBIDUNEN bilakaera, adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Izan ere, elebidunen artean, eta bereziki elebidun gazteen artean, euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoi nagusiak hauek dira: lehen hizkuntza erdara izanik euskaraz jarduteko erraztasun urriagoa izatea eta gehienak gune erdaldunetan bizitzea.

6. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritzia araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Euskararen erabilera sustatzearen alde daude 16 urte edo gehiagoko biztanleen %62,3 EAEn, %38,5 Iparraldean eta %37,7 Nafarroan.

Euskara sustatzearen ez alde ez aurka biztanle-multzo esanguratsua dago: %40,2 Iparraldean, %27,8 Nafarroan eta %26,1 EAEn.

Euskara sustatzearen aurka daudenak %11,6 dira EAEn, %21,3 Iparraldean eta herena (%34,5) Nafarroan.

8. Taula. Jarrerak, lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Aldekoa	55,2	62,3	37,7	38,5
Ez alde, ez aurka	27,7	26,1	27,8	40,2
Aurkakoa	17,1	11,6	34,5	21,3

Euskal Herri osoa kontuan hartuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 7 puntuko igoera izan du hogeitun urtean. Izan ere, 1991n euskal herritarren %47,5 zegoen euskara sustatzearen alde eta %55,2 dago gaur egun euskara sustatzearen alde.


Hogei urteko epean euskara sustatzearen aldeko jarreraren igoerarik handiena Nafarroan izan da, %21,6 baitziren euskara sustatzearen aldekoak 1991n, eta %37,7 dira gaur egun.

EAEen ere 7 puntuko igoera izan du euskararen aldeko jarrerak azken hogeitun urteotan (1991n %55 eta 2011n %62,3).

Iparraldean, aldiz, alderantziz gertatu da. 1996an %42,3 zegoen euskara sustatzearen alde eta egun %38,5 dira aldekoak. Hortaz, hamabost urteotan euskara sustatzearen aldeko jarrerak ia 4 puntuko beherakada izan du.

Euskal Herri osoa kontuan hartuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 7 puntuko igoera izan du hogeitun urtean. Izan ere, 1991n euskal herritarren %47,5 zegoen euskara sustatzearen alde eta %55,2 dago gaur egun euskara sustatzearen alde.

30. Irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Bestalde, aipatzekoa da euskararekiko jarrerak lotura handia duela hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen

Aipatzekoa da euskararekiko jarrerak lotura handia duela hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen %88tik gora EAEn eta Nafarroan eta %73 Iparraldean. Erdaldunen artean, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenak %18,3 dira EAEn, %41,2 Nafarroan eta %27,8 Iparraldean.

alde daude elebidunen %88tik gora EAEn eta Nafarroan eta %73 Iparraldean. Erdaldunen artean, euskararen erabilera sustatzearen kontra daudenak %18,3 dira EAEn, %41,2 Nafarroan eta %27,8 Iparraldean.

Adinari dagokionez, EAeko eta Nafarroako gazteen artean nahiko altua da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, baita helduen artean ere EAEn. Iparraldean, aldiz, gazteenak dira aldeko ehunekorik txikiena dutenak, nahiz eta azken bost urteotan gora egin duen. Era berean, 65 urtetik gorakoen artean euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa handia da Nafarroan eta Iparraldean, gainerako adin taldeetan baino handiagoa.

Egindako galderetan azpimarratzekoa da EAEn, 16 urte edo gehiagoko biztanle gehienei ezinbesteko begitantzen zaiela haurrek euskara ikastea (%81) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (%75). Iparraldean ere horrela uste dute biztanle gehienek (%51 eta %53, hurrenez hurren). Nafarroan, ordea, gehienei Administrazioan sartzeko euskaraz jakiteari ezinbesteko irizten diote (%53), baina ez haurrek ezinbestez euskara ikasi behar dutela (%43), aurkakoak ere asko baitira, %48, alegia.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, seme-alaben irakaskuntza ereduaren hautuari dagokionez, euskarazko eredu (D eredu) ikas dezaten nahi lukete EAeko biztanleen %66k, Nafarroako %32k eta Iparraldeko %19k.

Gainerako ereduari erreparatu, Iparraldean biztanleen herenak (%34k) irakaskuntza elebidunaren (euskaraz eta frantsesez) alde egingo luke. Nafarroan, aldiz, biztanleriaren laurden batek (%24) B eredu aukeratuko luke. EAEn ere %25ek aukeratuko luke B eredu euren seme-alabentzat.

Laburbilduz

1. Gizartea bizkor aldatzen ari da, zahartze prozesua areagotzen ari da, jaiotze-tasa urriak ia-ia bere horretan segitzen du eta denbora laburrean etorkinen kopurua nabarmen hazi da, batez ere Nafarroan (etorkinak %11,2 Nafarroan eta %6,6 EAEn).
- 2.. Hamasei urte edo gehiagoko biztanleen artean, 1991n baino 185.600 elebidun gehiago daude 2011n (%27 gaur egun). Elebidunen hazkunde Nafarroan eta, batez ere, EAEn gertatu da. Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude, baina gazte elebidunen kopurua hasi da dagoeneko gora egiten. Aldi berean, hamasei urtetik gorako erdaldunak duela 20 urte baino 140.239 gutxiago dira Euskal Herrian (%70 1991n eta %58,4 2011n). Erdaldunen ehunekoak behera egin du EAEn eta Nafarroan. Iparraldean, aldiz, gora egin du bai kopuruak baita ehunekoak ere.

3. 16 urte edo gehiago dituzten biztanleak hartu beharrean, biztanleria osoa kontuan hartuz gero, Euskal Herriko elebidunen ehunekoa are handiagoa da. Izan ere, hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera neurtzen denean, ikus daiteke elebidunen hazkundera gazteen artean gertatzen ari dela bereziki. EAEn eta Nafarroan, esaterako, 16 urtetik beherako gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena.
4. Azken 20 urteotan elebidun hartzaileak bikoiztu egin dira Euskal Herrian: %14,7 dira gaur egun eta %7,7 ziren 1991n. Hazkunderik handiena EAEn eta Nafarroan gertatu da eta neurri txikiagoan Iparraldean.
5. Gaur egun guraso biak elebidunak direnean, euskara transmititzen dute ia denek (%97 Euskal Herrian), baina askok erdararekin batera (%13) Iparraldean transmisioa apalagoa da (%87), eta gainera bikote euskaldun askok (%33) erdararekin batera transmititzen dute. Bikote mistoen kasuan transmisioak gora egin arren, ez da erabatekoa (%71 EAEn, %67 Nafarroan eta %56 Iparraldean).
6. Hizkuntzaren erabileran hiztunak hizkuntza horretan duen erraztasuna eta harreman-sareak erabakigarriak dira. Hiztun asko, batez ere gazteak, euskaldun berriak dira. 2011n, 16-24 urte tarteko elebidunen %52 euskaldun berriak dira EAEn, %38,6 Iparraldean eta %54 Nafarroan. 1991n, aldiz, euskaldun berriak elebidunen %14 ziren EAEn, %9 Iparraldean eta %16 Nafarroan. Elebidunen erdia, gainera, gune erdaldunetan bizi da. Beraz, elebidunen erdia gaztelaniaz edo frantsesez nagusiki diharduen harreman-sare zabaletan bizi da eta euskara erabiltzeko aukera gutxi du.
7. Ezagutzak ez ezik erabilerak ere gora egin du eremu guztietan, etxean izan ezik. Baina etxean ere, seme-alabekin eta neba-arrebekin erabilerak gora egin du.
8. Gazteen artean geroz eta nabarmenagoa da euskararen erabileran gertatzen ari den hazkundera. Izan ere, 35 urtetik beherakoen artean euskara erabiltzen dutenak duela hogeitun urte baino gehiago dira Euskal Herri osoan.
9. Gaur egun duela 20 urte baino lagun gehiagok daki euskaraz, beraz, neurri batean ala bestean, lagun gehiagok erabiltzen du euskara. Baina gaur egungo elebidunen artean euskara erabiltzen dutenen proportzioa ez da duela 20 urte erabiltzen zutenena baino handiagoa.
10. Euskararen aldeko jarrerak eta hura indarberritzearen aldeko borondatea areagotu egin dira EAEn eta Nafarroan, ez ordea Iparraldean. EAEn eta Nafarroan adin-talde guztietan egin du gora. Iparraldeari dagokionez, azken bost urteotan gazteen artean euskararen aldeko jarrerak gora egin du. ●

Hizkuntzaren erabileran hiztunak hizkuntza horretan duen erraztasuna eta harreman-sareak erabakigarriak dira. Hiztun asko, batez ere gazteak, euskaldun berriak dira. 2011n, 16-24 urte tarteko elebidunen %52 euskaldun berriak dira EAEn, %38,6 Iparraldean eta %54 Nafarroan. 1991n, aldiz, euskaldun berriak elebidunen %14 ziren EAEn, %9 Iparraldean eta %16 Nafarroan.